

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
35/02 makrosumarioaren sententzia dela-eta

JUSTIFIKAZIOA

Después de que, hace pocas semanas, se hiciera pública la sentencia del macrosumario político 35/02, la Audiencia Nacional de Madrid ha ordenado que se condene a varios donostiarras y que se confisquen algunas sociedades y bares.

Posteriormente, varias personas se han reunido estos días con los partidos políticos del Ayuntamiento, en nombre de las personas y asociaciones afectadas por la mencionada sentencia, con el fin de, además de hacerles conocer su posición, los partidos asuman la moción elaborada y sea tratada en Pleno.

Es por ello que el grupo municipal EH BILDU presenta la siguiente declaración institucional, remitida por las citadas personas.

Eskubide zibil eta politikoen aldeko
DONOSTIARRON ADIERAZPENA

Euskal Herritarrok urte luzez gatazka eta sufrimendua bizi izan ditugu. Azken urteotan emandako urratsek eta sortutako testuinguru berriak, justizian eta bakean oinarritutako etorkizun baterako aukera zabaltzen dute.

Eragile politiko eta sozialek zein norbanakoek emandako urratsek ekarri gaituzte egoera honetara. Eta etorkizuna eraikitzen jarraitzeko, ezinbestekoa izango da denok erantzukizunez jokatzeko jarraitzea. Bide horretan, lekuz kanpo daude konponbidea oztopatu asmoz jartzen dituzten trabak, prozesu judizial hau eta aurreikusita dauden besteak, hori dira: traba berriak.

Prozesu hauen mehatxupearan segitzen duten zenbait Donostiar daude oraindik, eta zentzu honetan, 35/02 auziko sententziak frustrazioa eragiten du. Oraingo honetan 4 donostiar izan dira zigortuak: Joseba Alvarez, Joseba Permach, Agus Rodriguez eta Juani Lizaso; eta bost lokal konfiskatuak: *Hontza, Marruma, Herria, Haritza* eta *Txalaka* elkarteak.

Eraiki beharreko eszenatoki berrian eskubide zibil eta politiko guztiak bermatu behar dira. Beraz, militante politikoen kontrako zigorrak zein herriko tabernen itxierak ez dute ez tokirik, ez zentzurik. Nola ulertu Frankismo garaiko gisako zigorrak? Nola ulertu 1936tik hona burutu den ondasun lapurreta handiena egungo testuinguruan?

Sententzia honek gure herriko gatazkaren amaiera garaile eta galtzaile eskemara eraman nahi du. Ozen aldarrikatu nahi dugu, aurrera urratsak, konponbide justua denok garaile izango garen eskeman soilik etorriko dela. Adierazpen hau

sinatzen dugunok, sententzia honen aurrean gure kontrakotasun osoa adierazi nahi dugu. Zigortutakoen absoluzioa eta herriko tabernen zigorraren indargabetzea eskatzen dugu.

Hala nola, sententzia honek eragiten dituen kaltetu guztiekiko elkartasuna adierazi nahi dugu. Helburu honen baitan, konpromisoa hartzen dugu gure esku dauden elkartasun zein salaketa ekimenak bultzatzeko.

Donostia, 2015eko uztailaren 10

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea